

Antxiñako fotografixia



1950 inguruko Aloña-azpixa

Oñati ezta asko aldatu dixuenak be badira. Zertan dan; gauza batzuetan hala izango da akaso, baiña beste zenbaitetan kanbixoko galanak izan dittugu gure herrixan. Hirigintza saillian, beste herri batzuetan baiño guxiago izan arren, aldakuntza haundixak euki dittu Oñatik XX. mendeko bigarren erdialde honetan. Ikusi, bestela, **Tetuan, Lekunbarri, Lezesarri, Berezao,** eta **Murgixa** aldeko parajiak erakusten docusun fotografixa hau. Itxura batian, orain lala gutxirarte antzera mantenidu da nguru hau, baiña ondo begiratu ezkeron, emen be barrikuntzak pittinka-pittinka

aspalditxo hasi zirala konturatuko gara. Argazki honetako eraikuntza batzuk orduantxe egindakuak dittugu: esate baterako, Lezesarriko etxe-bizitza eta fabrika batzuk ezker aldean, eta artian aldagela barik daguen **Azkoagaiñeko futbol-zelaixa** San Esteban azpizan; gaiñera beste batzuk gerra aurreko urtietan jaso ziran: **Benediktinen ikastetxia** eta **Gomendiotarren txaleta**, adibidez.

Dana dala, barriak egin, aldatu edo ordezkatutako konstrukziñuak gehixago dirala esan leike lehendik geratu diranak baiño. Banaka batzuk aittaketiarren: 1953tik aurrera **Lezesarri** jaso ziran

etxe barriak; **Altzibarretik Berezao** bittartian egin dan fabrika mordoskia: **Uribarri, Igartua, Zahor, Industrialde barrixa**, etab.; **Betik** palillo-fabrikia eta sahiesbidia (bariantia) Azkoagaiñen; Lekunbarrin ordezkatu dan etxe pillatxua; eta azkenaldi honetan batez be **Arruenian, Zubibarri-Tetuanen eta Bidabarrietan** gauzatu diran eta gauzaketan diharduen aldakuntza sakonak.

J.E.

Joxe Fernandezek itxittako fotografixa.